

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 10a / 596. zenbakia



SAN MARTINAK

Danbor hotsek giroa alaituko dute hurrengo astean

AROSTEGIKO ARETO BERRIA: LANAK, AMAITZEAR/5 • ELKARRIZKETA: YOLANDA GUILLEN/13

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 23
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

ZAPATUA, 24
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

DOMEKA, 25
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

ASTELEHENA, 26
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05

MARTITZENA, 27
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

EGUAZTENA, 28
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

EGUENA, 29
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxtak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta lanegunak:	Zapatuak: 20:00.
19:00.	Angiozar
Santa Marina	Domekak: 11:00.
Zapatuak:	Moja Zaharrak
19:00.	Lanegunak: 08:00.
Domekak:	Mizpirualde
13:00.	Lanegunak: 11:45.
Sierbak	Zapatuak: 17:30.
Lanegunak: 19:30	Antzuola
Osintxu	Domekak:
Domekak: 12:00.	10:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Domekak: 11:00.	Uzarraga
Ubera	Domekak: 10:00.
Domekak: 10:30.	Elgeta
San Juan	Lanegunak: 09:00.
Domekak: 11:00.	Zapatuak: 19:30.
Elorregi	Domekak: 12:00.
Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, abuztuan bi odol ateratze izango dira, hilaren 11n eta 25ean, hain zuzen ere. Ohikoa denez, Seminarioan izango dira, 18:30ean hasita.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Domekan, uztailaren 25ean, Arantzazura erromesaldia izango da. Bergaratik 09:30ean irtengo dira autobusak. Eguerdiko mezaren ostean bazkaria egongo da Arantzazuko Hospederian. Arratsaldean, autobusak aterako dira Loiolara joateko. Izenematea Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) edo Zatoia dendan (Barrenkalean).

ARITZETAREN ZOZKETA
Aritzeta abesbatzak egindako zozketan, 3.282 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Luis Laskurain margolariak egindako margolana eskuratu du. Irabazleak abuztuaren 4ra arte izango du saria jasotzeko epea.

JARDUNENAGENDA

TRIKITI ETA BERTSO ESKOLA
Trikiti eta bertso eskolaren datorren ikasturteari begira izenematea zabalik dago Jardunen. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

BEGIRALE LAN POLTSA
9-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak: 943 76 08 19.

KANTU LIBURUKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Arriola garaile aurre kargako armen plater tiroketan

Jose Arriola eibartarrak irabazi zuen 1994ko irailaren 9an Gorlan jokaturako aurre kargako armen plater tiroketa. Hogei bat partaide izan ziren Gorlan eta guztiek garaiko jantziekin apaindurik hartu zuten parte tiroketan. Jabier Linazisoro izan zen herriko partaide bakarra.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eraxxi"



1. Esnea jeitsi behiak errapera.
— *Beixak, jasteillia ezezauna dalako ero, batzutan esnia jaso eitten dau ta ezin izaten da ezer eñ aiketa berriz eraxxi arte.*
2. Jetzi, eraitsi, bildu.
— *Aittak beixak erasten diardu.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 1	13 °C
MAXIMOA Domeka, 5	36 °C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	36,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	32 °C	13 °C	— l/m ²
Eguena, 2	28 °C	15 °C	12,6 l/m ²
Egubakoitza, 3	28 °C	16 °C	0,5 l/m ²
Zapatua, 4	32 °C	18 °C	— l/m ²
Domeka, 5	36 °C	18 °C	4,3 l/m ²
Astelehena, 6	29 °C	18 °C	17,4 l/m ²
Martitzena, 7	28 °C	17 °C	1,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK


'EL REY ARTURO'

ZUZENDARIA: ANTOINE FUQUA. AKTORE-
AK: CLIVE OWEN, KEIRA KNIGHTLEY.


HARIA. V. mendea. Arturok Erre-
suma Batuko errege izateari utzi
eta Erromara itzuli nahi du. Hala
ere, bere ordezkoa nor izango
den argitu beharko da...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean,
22:30ean; zapatuan, 17:00etan,
19:30ean eta 22:30ean; domekan,
17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean;
astelehenean, 19:30ean (ik. egu-
na).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ITREBENTZIAEZPADA/ Zer gustatzen zaizu gehien San Martin jaietatik?




MARIJE UGALDE
39 urte



FELIX IÑIGUEZ DE HEREDIA
62 urte



NESTOR ETXARRI
40 urte



AGUSTIN HEIS
61 urte



MARI KARMEN LETURIA
66 urte



MILA LARRAÑAGA
54 urte

Suzko erruberak eta danborrada. Umeek parte hartzen dute danborradan, eta hori gustatzen zait bereziki. Suzko erruberak ere, urtean behin direnez, gustura irusten ditut.

Jai batzordekora naizenez gutzia gustatzen zait. Baina zerbait aipatzekotan danborrada aipatuko nuke. Urte askoan hartu dut parte eta aurten ere irteteko asmoa dut.

Herritik alde egitea. Jaiak ez ditut gustuko eta kanpora joateko aprobetxatzen dut. Hemen geratu izan naitenez, berriz, parrandara irtetea gustatu zait, jai giroa bera.

Dena gustatzen zait, jaietan kalean egoten den giroa eta mugimendua oro har. Umeen danborrada polita izaten da, nik biloba txiki bat dut eta berarekin joango naiz danborrada ikustera.

Herriko santuaren omeneko jaiak izanik herritarren artean egoten den giroa dut gogoko. Jendeari danborrada gustatzen zaio, baina nire ustez azoka politagoa izaten da.

Danborrada gustatzen zait gehien. Nik ez dut sekula parte hartu, baina etxeko umeek bai, eta eurak ikustera joaten naiz beti; aurten ere badaukat danborrada ikusteko asmoa.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK FILMEAN PARTE HARTU ZUTENI Irakurle batek *Aupa, Etxebeste* filmean parte hartu duten herritarrak txalotu nahi ditu. Izan ere, "herriari jaien itxura ematea zen helburua eta jende askok hartu zuen parte filmaketan, eta giro polita sortu zen. Nik ez nuen espero hainbeste jende izango zenik". Herritar honek ez ezik filmaren zuzendariak ere eskertu dute bergararren parte-hartzea. //A.

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|--|---|
| ASTEKO /4 | KIROLA /8 | KULTURA /13 |
| Aspaceren egoitza berria | Holandako Iron Man proban | Yolanda Guilleni elkarrizketa |
| Aspace gutxitu psikikoen elkartek egoitza berria zabalduko du urte bukaera aldera Oxirondo plazan. | Aritz Kortabarria eta Joseba Zuzae-ta bergararrak Almerko Iron Man proban izan dira, Holandan. | Ispilu antzerki taldeko zuzendaria da Yolanda Guillen bergararra. Berarekin hitz egin dugu. |

ASTEKODATUA

230

NESKA-MUTIKO HAURREN DANBORRADAN


Herriko 230 neska-mutiko inguruk hartuko du parte San Martin eguneko danborradan. Haurren danborrada egunean 18:00etan aterako da, herriko kale nagusiak zeharkatuz.

BESTEKEESANA

“Jony eta lagunak komiki liburua argitaratzeko aukera hurbil ikusita, eduki kritikoagoak sartzeko erabakia hartu nuen. Liburua irakurritz ondo pasatzeko egina da, baina baita gogoeta apurtxo bat egiteko ere”
JON SUINAGA / Komikigilea
'Deia'/04-09-01

“Baloia guk ez dugunean presioa egingo dugu, baina behin eskuratuta goiko aldean jokatzea da gure asmoa. Baditugu jokalariek goi partean baloia jokoan jarri eta arriskua sortzeko gai direnak. Baloia goian lapurtzen saiatuko gara, baina arazorik izanez gero ez diogu uko batuago jokatu eta kontra erasora jokatzeari”
IGOR GORDOBIL / Bergara Kirol Elkarteko Preferente mailako entrenatzailea
'El Diario Vasco'/04-09-04

BERAIEKIDINE/ Unai Lopez



Hollywood... motz!

Abuztuko biharamunaren zama astuna gainetik ezin kendu gabiltzan honetan, hor noa etxerako bidean lau gurgildunaren gainean. Eguneroko txikikeria hau trebetasun eta zuhurkeriaz jokatu beharreko dema bihurtu da herrira bueltatu garenetik; ustekabeko debekuak, oportetan berreskuraturiko pazientzia galarazten duten hamaika gezi berri... tira, herriaren eta naturaren onerako izan daitezela lan hauek guztiak. Irratitik begiak altxatu eta... zer demontre! Noski, Aupa Etxebeste! Hara non ikusten dudan herriko plaza Hollywood-eko eskenatoki famatu horietako bat bezala jantzirik: horko kamera, horko apaingarri, horko aktore... eta baita makina bat herrikide zuzendarien aginduei jaramon egiten, Ameriketako izar famatuenak bezala adi-adi kamera aurrean estreinako pausotxoak emanez. Hor dabil ere Udal Musika Banda kalean goitik behera,

goraipatzeko merituarekin eguzkipean kiskaltzen, temati behin eta berriz gainean ditugun San Martin jaiak aurreratu nahian. Luzemetrai bat gure artean, a ze mauka gurea, kale, txoko eta aurpegi ezagunak, geure-geureak, hango eta hemengo zineetan ikusteko parada, mila esker!

“Hollywood-eko film horietako baten amaiera besterik ez dela entzun nahi dut albistearen amaieran”

Bat-batean zeluloidezko mundu bitxi eta harrigarri honetatik errealitate gordinera bueltarazten nauten hitzak entzuten ditut irratian: Ipar Osetia, Errusia; dagoeneko ia 400

dira hildakoak eskola baten bahiketak eragindako odol-isurketan. Umeak, haur erruga-beak, erdia baino gehiago. Hau ere Hollywood-eko film horietako baten amaiera besterik ez dela entzun nahi dut albistearen amaieran, Aupa Etxebeste! bezala fikziozko lan bat, hori soilik. Ez; hau gure benetako mundua da, betiko gidoi eta guzti, oraingoan gainera umeak protagonista, hauek bai zeruko izar berriak.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



JAIK/ Jai egitarauarekin hasteko XX. Moises Azpiazu dantza txapelketa jokatu da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean

Danbor hotsak, musika, sokamuturra eta disko festa San Martin eguna ospatzeko

EDU MENDIBIL

Oraingo aste bukaeran hasi eta datorren aste bukaera bitartean San Martin jaiak ospatuko dira herrian. San Martin egunaren bezperan danbor hotsek giroa berotuko dute eta egunean sokamuturra, musika edota haurren danborrada izango dira protagonista.

Jai egitarauarekin hasteko, gaur, egubakoitza, Moises Azpiazuren oroimenezko dantza askatuko txapelketa jokatu da Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Hamabi bikote izango dira lehian, tartean Asier Ena-Maite Lazkano, Alex Torre-Josune Fernandez eta Aitzol Ena eta Janire Urbieta bergararrak. Azken hauek Miren Illarreta donostiarra eta Xabir Azurmendi zegamarrarekin osatzen dute bikotea, hurrenez hurren. Domeka, Asier Ena eta Maite Lazkano bigarren geratu ziren, Azpitarte anai-arreben atzetik. Aitzol Ena eta Miren Ilarreta, berriz, bosgarren sailkatu ziren.

Bihar, zapatua, berriz, Ispilu taldearen antzezlanaz izango da Zabalotegin, 19:30ean, eta domekan San Martin herri krosa jokatu da, 11:00etan.

ZAZPI ELKARTE NAGUSIEN DANBORRADAN Eguaztenean, San Martin bezperan, Kukubiltxo taldearen eskutik kale antzerkia izango da 19:00etan eta gauean, berriz, nagu-



Haurren danborradan 230 neska-mutiko inguru aterako dira egunean, San Martin egunean, 18:00etan.

sien danborradaren txanda izango da. Aurten zazpi elkartek hartuko dute parte eta ohiko ibilbidea egingo dute, 22:30ean Seminariotik irtenda.

Eguenean, San Martin eguna ospatzeko, Udal Txistularien Ban-

darekin diana izango da 08:30ean eta jarraian sokamuturra plaza inguruan, 09:00etan hasita. Ondoren, Udal Korporazioak lagundutako meza nagusia izango da San Pedro parrokian, 11:00etan. Eguerdian, 12:30ean,

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du San Martin plazan eta arratsaldean haurren danborradak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu. Gauean Biduri Sound disko jartzailearekin festa handia izango da eta buka-

tzeko suzko erruberrak Agorrasinen, 22:30ean.


Bestalde, oraindik aukeratu dago hilaren 17ko gazta dastatze ikastarorako izena ematea. Interesatuak 943 77 91 59 telefonora dei dezakete.

Aspaceko egoitza berria urte amaiera aldera zabalduko dute

E.M.

Aspaceko egoitza berria zabalduko du Oxirondo plazan. Egunotan lokala txukuntzeko lanetan ari dira langileak. Dena den, Marga Martinez Bergarako Aspaceko arduradunak aurreratu digunez, urte bukaera aldera joango dira lokal berrira.

Ibaiondoko egoitzan 18 urteko gorako 26 lagun daude gaur egun eta Martinezen hitzetan lokala txikia geratu zaie: "Itxaron zerrendan hainbat jende daukagu eta beharrezkoa zen lokal handiago batera trasladoa egitea. Edozein modutan, ahal dugun bitartean bi lokalak zabalik mantenduko ditugu, Oxirondokoa eta Ibaiondokoa". Lokal berriak 264 m2 ditu eta, esan bezala, abendu aldera inauguratuko dute. 27 urte dira Aspaceko egoitza Bergaran zabaldu zutenetik. Orduan gaztetxoaren zentroa ireki zuten Semi-



Oxirondo plazako 3. zenbakiaren ondoan izango du sarrera egoitza berriak.

narioan eta 1989tik helduen egoitza martxan dago Ibaiondon.

Debabarreneko eta Debaioeneko gutxitu psikikoak biltzen ditu Bergarako egoitzak.

Beraien zeregin nagusietako bat otarregintza proiektuak egitea da. Urritik aurrera Estatuko 40 Eroski dendatara zabalduko dute euren lana.

LABUR

Iker Iburguren eta Lander Urigoitia bergararrak udaltzain berriak ditugu

Uztailean egin ziren probak gainditu eta gero, Iker Iburguren eta Lander Urigoitia bergararrak udaltzain lanetan hasiko dira abenduaren 17an. Biek ere formazio prozesua egiten dihardute Arkauten, eta hura bukatu eta gero abenduaren 22an hasiko lirateke lanean. Berriak 17 udaltzain izango dira Udaletxeko lan taldean.

Txapa Irratikoez martitzenean egingo duten bileran parte hartzeko deia zabaldu dute

Txapa Irratiko kideek martitzenean, irailaren 14an, bilera egingo dute Bergarako gaztetxean, 19:00etan.

Besteak beste, programazio berria, barne funtzionamendua eta 20. urteurrenko ospakizunak izango dituzte aztergai. Txaparikoez bileran parte hartzeko deia egiten diete interesatuak.

Usoa Mendikute bergararraren margoak Nahikarin ikusgai, irailaren amaierara arte

Usoa Mendikute margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago egunotan Masterrekako Nahikari tabernan. Usoa Mendikute Arte Ederretan lizentziatua da eta azken urteotan Londonen bizi da. Han landutako koadroak erakusten ditu Nahikarin. Pop art estiloko sententzia nabarmena daukate euren lanetan. Erakusketa irailaren amaierara arte izango da zabalik.

KULTURA/ Data zehazteke egon arren, Abon Juaristi zenaren erakusketa batekin irekiko da


Arostegin erakusketa aretoa jartzeko lanak, amaitzear

E.M.

Hasiera baten San Martin jaietarako zabaltzeko asmoa bazegoen ere, Arostegi etxeko erakusketa aretoaren inaugurazioak itxaron egin beharko du oraingoz. Lanak amaitzear daude eta udazkenean irekiko dute, Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa batekin.

Iñaki Berasategi, Elisabet Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindako proiektuari jarraituz egiten dihardute Arostegi jauregian erakusketa aretoa jartzeko lanak. Esan bezala, lanak amaitzear daude. Proiektuaren arduradunen arabera, hamabost egun barru lanak amaituta izango dira.

Erakusketa areto berriak 179 m²ko azalera izango du eta arte areto gisa erabiliko da. Beheko sotoan (50 m²-koa), berriz, biltegia, komunak eta aire egokitua-ren makinaria kokatuko da. Victoriano Gallastegi alkateak zera adierazi digu: "San Martin jaietarako zabaltzeko asmoa geneukan baina hainbat arazorengatik lanak atzeratu egin dira eta udaz-



IRATI AGIRREAZALDEGI

Arostegin erakusketa areto berria jartzeko lanak bukatzear daude egunotan.

kenean zabalduko dugu. data apropos bat aukeratu nahi dugu. Aroto berria Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa batekin zabalduko dugu".

Donostian zaharberritzen diharduten Arostegiko XVI. mendeko atea areto barruan egongo da ikusgai. Jauregiaren sarrean ate berria jarriko dute.

Aceraliaren ke jarria dela eta, hainbat herritarren kezak


E.M.

Azken asteotan hainbat herritarren kezak jaso dira udaletxean, Aceralia enpresaren ke jarria dela eta. Labegarrietako auzotarrak eta beste hainbat herritar kezkatuta daude arazoarekin eta beren protesta azaldu dute udaletxean. Antza, abuztuko zenbait egunetan ke jarria nabaria izan da eta hori zuzentzeko neurriak har ditzala eskatu diote udalari.

Victoriano Gallastegi alkateak zera adierazi digu: "Kutsaduraren inguruko gaiak Eusko Jaur-

lartzaren konpetentzia dira. Hala ere, kezkatuta gaude gaiarekin eta hartu-emanetan gaude Aceraliako arduradunekin".

Aceraliako iturriek, berriz, arazoaren gainean lanean dihardutela esan digute. Juan Carlos Berraondo gerentearen hitzetan, "Gabonetarako arazketa sistema berria martxan egongo da. Horretarako 6 milioi euro inbertituko ditugu, Europako sistemarik aurreratuenetakoa jarri. Jaur-laritzako ordezkariarekin izan gara eta arazoa lehenbailehen konpontzeko asmoa dugu".



IRATI AGIRREAZALDEGI

Udako hainbat egunetan ke jarria nabaria izan da.

Agirre baserria eta garaia, Multzo Monumentala

E.M.

Eusko Jaurlaritzak Multzo Monumentala deritzon izendapena eman berri die Agirre baserriari eta ondoko garaia. Izendapen berrirako prozesua martxoan ireki zen eta izendapen berria udan heldu da.

Tramitazioa egiterakoan, Bergarako Udalak alegazioa aurkeztu zuen: aipatutako monumentuen toponimia argitzeko eskatu zion Jaurlaritzako Kultura Sailari. Izan ere, hiru izen erabili izan dira garaia eta baserria izendatzeko: Agarre, Agerre eta Agirre. Aurrerantzean Agirre izena erabiltzeko eskatu zuten Berga-

rako Udaleko ordezkariak. Jaurlaritzak oniritzia eman dio Udalaren proposamenari, eta, beraz, Agirre izenarekin etorri da Jaurlaritzaren errekonozimendua.

Multzo Monumentala izendapenak babes berezia ematen die Agirreko baserriari, garaia eta inguruko lursailei. Agirreko garaia XVI. mendeko lehen erdialdekoa da. Zurezko biltegiaren okela edo garia gordetzen zuten bere garaian.

Uda honetan ere turista ugari etorri da Bergarara, besteak beste, garaia ikusteko asmoarekin. Izan ere, estilo horretako eraikinak ez dira oso ohikoak Euskal Herrian.



Basalgoko zozketa, Aretxabaletara

Basalgoko Santiago jaietan egindako zozketan, Aretxabaletako Basabe baserriko Luis Mari Madinabeitiak irabazi zuen saria. Sasaki ederra eraman zuen Madinabeitiak Aretxabaleta aldera: baserriko hainbat produktu, kaxa ardo bat, makila eta bi lagunenak bina afari Txuringo eta Mekolalde jatetxeetan. Sariaren arrastorik ez da izango honez gero... Irudian, ezkerretik hasita, Serafina ermitako arduraduna, sari-tua, Jesus Aldazabal eta Elias Lete elkarte presidentea.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

MINGAINARITIRAKA



Eladio Blanco

ELADIO OINETAKO KONPONKETAK

Galizian jaio zen Eladio, baina, bederatzi urte zituela etorri zen Euskal Herrira bizi izatera. Lehenengo Arrasaten bizi izan zen; orain dela hamalau urte etorri zen Bergarara eta oinetakoak konpontzeko denda jarri zuen.

Non ikasi zenuen oinetako konpontzaile lanbidea?

Etxean; nire gurasoek oinetakoak konpontzeko tailerra zuten, eta hantxe ikasi nuen lanbidea. Orain dela hamalau urtera arte, aitarekin jardun nuen lanean. Aitona eta birraitona ere oinetako konpontzaileak ziren.

Bi alaba dituzu. Haiei ere lanbidea irakasteko asmoa duzu?

Ez dakit, ez dakit; oso txikiak dira oraindik.

Oinetakoak konpontzeaz gain, beste konponketa batzuk ere egiten dituzu.

Bai; poltsak, motxilak, maletak... denetik konpontzen dut.

Garai baten oinetakoak konpontzaileari eramateko ohitura handiagoa zegoen, ezta?

Bai; gainera, jende askok jakin ere ez daki oinetakoak hondatzen direnean konpontzailearengana eraman ditzakeela. Dena dela, hamalau urteotan ez da asko jaitsi bezero kopurua.

Momentu honetan, zenbat oinetako dituzu tailerlean?

Berrogeita hamar bat.

Zenbat oinetako konpontzen dituzu astean?

Batez beste, ehun bat oinetako pare.

Zeuk ze oinetako dituzu nahiago, zapatak edo zapatilak?

Zapatak.

Oporretan non ibili zara?

Galizian; senitartekoei bisita egin diegu eta turismo pixka bat ere egin dugu.

Bergarak zer falta du?

Gauza bat argi dago: igerilekuak. Bestalde, Bolun, adibidez, aparkaleku arazo handia dugu.

Bergaran zer gustatzen zaizu gehien?

Oso herri polita da; Usondoko parkea, Gorla ere oso toki atsegina da...

Ikasturte berrian, zer erronka duzu?

Argaltzea; azkeneko urtebetean zortzi kilo galdu ditut, baina, oraindik, beste pixka bat argaldu nahi dut.

Bukatzeo, amets bat?

Lanik ez egitea eta alabez eta emazteaz gehiago gozatzea.

AINTZANE IRIZAR.

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Arzelus

INDIA / 2004ko uztailean

Amaia Ikaztegiatiko bi lagunekin joan zen uztailean Indiara. Hegazkina hartu eta New Delhira abiatu ziren. Bi egun egin zituzten hantxe; horrelaxe gogoratzen du Amaiak iritsi ziren eguna: "Izan genuen lehenengo inpresioa izan zen hiri kaotikoa zela". Ricshaw-ak (bizikleta taxiak), autoak, jendea... Gainera, sekulako beroa egiten zuen. New Delhin harritu zituen beste gauza bat izan zen Raj Ghat parkea: "Gandhi-ren errautsak hantxe daude eta jendeak errespetu handia dio toki horri; kaleetan dagoen iskanbilarekin, parkera sartu eta han dagoen isiltasunak harritu egin gintuen", azaldu digu Amaiak.

Hasieran, Rajastanen ibili ziren. New Delhitik Jaitur-era joan ziren, trenez. Jaitur hiria Pink City bezala ere ezaguna da; horren arrazoia da etxe guztiak arrosa kolorekoak direla.

Jaitur-etik Pushkar-era abiatu ziren; hinduismoaren barruan, erromesak herritxo honetara joaten dira. Hemendik Jaisalmer-era joan ziren; Urrezko Hiria ere deitzen diote. Pakistane-kin muga egiten duen Thar desertuan dago Jaisalmer. "Hiri honetan ikusgarriena da hango harresia eta kale estuak, labirinto itxurakoak. Etxeak Havelis-ak deitzen dira eta desertuko harriarekin



"New Delhi hirira iritsi eta izan genuen lehen inpresioa izan zen oso hiri kaotikoa zela"

"Indiako zati txiki bat besterik ez genuen ezagutu; itzultzeko gogoarekin geratu naiz"

egon ziren, Aulin, hain zuzen ere.

"Ekarri nuen inpresioa izan zen Indiako zati txiki bat besterik ez genuela ikusi; itzultzeko gogoarekin etorri nintzen", azaldu digu Amaiak.

AINTZANE IRIZAR



Ganges ibai sakratura joaten dira hinduistak, bainuak hartzera eta hiltzera.

ORRASKI
ile apaindegia



ORDUTEGI BERRIA

- Astartetik ostegunera 9:00etatik 16:00etara
- Ostiraketan 9:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan 8:00etatik 14:00etara

San Pedro 6 - Tel.: 943 76 47 01

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76.10 34

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

FUTBOLA

Berrehun bat jokalaria arituko dira aurten BKEko futbol taldeetan

Preferente mailako taldeak Mondragonen aurkako derbya izango du domekan Atxabalpen, 16:30ean

EDU MENDIBIL

Berrehun bat jokalaria arituko dira aurtengo denboraldian Bergara KEko futbol taldeetan. Guztira, 10 talde aterako ditu futbol sailak. Preferente mailako taldea martxan da dagoeneko eta lehen mailako gazte mutilek aste bukaeran hasiko dute liga.

David Lopez de Abetxukok zuzentzen duen lehen mailako gazteen taldeak Donostiako San Ignazio taldearen bisita izango du bihar, zapatua, Ipintzan, 18:00etan. Iaz ohorezko mailatik jaitsi ondoren, sailkapeneko goiko postuetatik gertu egotea izango da mahoneroen asmoa. David Lopez de Abetxukoren jokalaria gazteek hiru partidu jokatu dituzte aurre denboraldian: Aretxabaletan 2-1 galdu zuten; Ermuan bana berdindu zuten eta azkenik, ermuarrei 3-1 irabazi zieten Ipintzan. Bihartik aurrera euren maila onena azaldu beharko dute. Hasierako, San Ignazio talde donostiarra ez da aurkari erraza izango.

LEHEN ERREGIONAL MAILAKORIK EZ

Nobedade gisa, BKEk ez du lehen erregional mailako talderik aterako aurten. Fernando Oregi taldeetako koordinatzailearen arabera, jokalaria falta izan da taldea ez ateratzeko arrazoi nagusia.

Preferente eta gazte mailako taldeez gain, hauek izango dira futbol sailaren beste taldeak: senior neskak (Larraitx Madariaga izango da entrenatzailea); nesken futbol-8 taldea (Mikel Fernandez Pope); bigarren mailako gazte mutilak (Juan Carlos Gomez



Lehen mailako gazteek San Ignazioren aurka jokatuko dute bihar, zapatua, Ipintzan, 18:00etan.

de Segura); ohorezko kadete mailakoa (Javi Oregi eta Karlos Gorrotxategi); bigarren mailako kadete (Aitor Gorosabel); infantil mailakoa (Joserra Lasa), infantil mailako futbol-8ko taldea (Ibon Leibar, Ibai Igarza eta Beñat Labaien) eta, azkenik, alebin mailako mutilen taldea, Julien Hurtadoren gidaritzapean izango dena. Guztira, 200 bat jokalaria arituko dira futbol sailean.

100.000 EURO ELKARTEARENTZAT

Bestalde, Agustin Arantzabalek Zaragoza taldearekin fitxatzeagatik 100.000 euro jasoko ditu Bergara KEk. Realak milioi bat euro jaso zuen Arantzabalek alde egitean eta kopuru horren %10 Bergarari dagokio, gaztetxo zenean Bergaran aritu zelako txuri-urdi-ndin kapitain ohia.

Iñaki San Jose Bergara KEko presidentearen hitzetan, "Xabier

Bengoetxea Realeko zuzendaritza taldeko kideak orain dela 15 bat egin deitu zidan eta egunotan 60.000 euro jasoko genituela esan zidan. Gainerako 40.000 euroak ere laster iritsiko zaizkigu".

Jasotako dirua Bergara KEk Bidekurutzetan duen tabernan berritzeko zuzenduko dute. Bien bitartean, Agorrosinen aldagela berriak egiteko proiektua geldirik dauka Udalak.

ESKUBALOIA

Nagusien eskubaloi taldeen partiduak bihar kiroldegian

Bergara KEko eskubaloi sailak senior mailako bi talde izango ditu aurten. Bihar, zapatua, adiskidetzako partiduak jokatuko dituzte kiroldegian: Lander Juaristik zuzentzen duen lehen taldeak Aloña Mendiren kontra, 16:30ean. Josetxo Muniategiren taldea Lea taldearen aurka arituko da, 18:00etan.

SASKIBALOIA

Kadete mailako nesken partidua Labegaraietan

Bergara KEko kadete mailako nesken saskibaloi taldeak adiskidetzako partidua izango du bihar, zapatua, Aloña Mendi taldearen aurka, Labegaraietako kiroldegian, 12:00etan. Jokin Perez dugu Bergarako taldearen entrenatzailea.

Bergara KEk lau talde izango ditu aurten: senior mailako mutilena, junior mailako mutilena eta, kadete mailan, mutilena eta neskena.

EHIZA

Herriko ehiza txapelketa hilaren 19an Zanbranan

Bergarako ehiza txapelketa jokatuko da datorren domekan, hilaren 19an, Zanbranan, Castillo ehiza-barrutian. Txapelketa 08:30ean hasi eta 13:00etan bukatuko da. Izene-matea (25 euro) Euxebio II edo Amilotx tabernetan egin daiteke. Izena emateko azken eguna eguaztena, irailaren 15a, izango da.

Bergara Hiriko finalen errebantxa partiduak jokatuko dira eguaztenean

E.M.

Bergara Hiria pilota txapelketako finalen errepikapena izango da eguaztenean, San Martin bezperan, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Promes eta amateur mailako finalistak aurrez aurre izango dira berriz.

Bi partidu jokatuko dira eguaztenean, hilaren 15ean, 19:30ean hasiko den pilota jaialdian. Esan bezala, Bergara Hiriko finalen errebantxa partiduak izango dira: promes mailan, Etxeberria-Iza zornotzarrek eta Olazabal-Betelu nafarrek neurtuko dituzte indarrak. Udaberriaren jokatutako finalen bizkaitarrak nagusitu ziren.

Orduan bezala, partidu polita ikusteko aukera izango dute pilotazaleek.

Eta jarraian, amateur mailako finalaren errebantxa izango da: Erroizenea-Argote eta Huizi-Gutierrez bikoteak izango dira aurrez aurre, hain zuzen. Erroizenea hernaniarrak eta Argote zarautzarrak eraman zuten Bergara Hiriko txapela. Igor Gutierrez bergararrak Huizi usurbildarrarekin maila ona azaldu zuen txapelketan, baina ezin izan zuten irabazi. Orain, mendeku hartzeko aukera izango dute. Zalantzarik ez, lehia handia izango da eguaztenean Udal Pilotalekuko kantxan. Ea Bergara Hirian izandako giroa ere berres-

kuratzerik dagoen, orduan ikusle dezente izan baitzen finaletan.

AZAGIRRE LOGROÑOEN TXAPELDUN

Iker Azagirrek Logroñoko El Cortijo auzoko lau t'erdiko finala irabazi zuen zapatuan. Bergararra 22-18 nagusitu zitzaion Iraola nafarri. Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek ere maila ona azaldu dute udan. Ruben Zapirainekin batera bikotea osatuz, Ander Zarautzeko txapelketan finalerdietara iritsi zen, baina ez ziren finalerako sailkatu, Antxia-Mendizabal bikotearen aurka 17-22 galdu eta gero. Igor Gutierrezek eta Rotetak, berriz, Lemoako txapelketako finala galdu zuten Errauskin anaien kontra, 8-22.



Erroizenea eta Argote, Bergara Hiriko amateur mailako azken txapelketa.

TRIATLOIA

Aritz Kortabarriak eta Joseba Zuzaetak Holandako Iron Man proban hartu dute parte

Igerian 3,8 kilometro, bizikletan 180 eta korrika maratoia egin behar izan zuten; lehenbiziko 50en artean sailkatzea lortu zuten herriko ordezkariak

EDU MENDIBIL

Aritz Kortabarriak eta Joseba Zuzaetak Holandako Almere hiriko Iron Man proban hartu zuten parte abuztuaren 28an ein zen triatloian. Biek ere lan ona egin zuten eta lehenbiziko 50 partaideen artean sailkatzea lortu zuten. Mundu osoko 500 partaide inguru bildu ziren Almeren.

Iron Man proba triatloia berruan gogorrena da eta distantziak beldurtzeko modukoak dira: partaideek 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia egin behar izan zuten Almeren. Esan bezala, Bergararik joandako bi ordezkariak lan txukuna egin zuten: Aritz Kortabarria 40. postuan sailkatu zen eta Joseba Zuzaeta, berriz, 51. postuan sailkatu zen Holandan. Biak ere pozik itzuli dira Almeren lortutako emaitzarengatik.

HAMAR ORDU INGURU AMAITZEKO

Igeriketa proba itsasoan izan zen eta bizikletan, berriz, nahiko ibilbide laua izan zuten triatletek.

Aurretikoa gutxi bazen, amaieran maratoia korritu behar izan zuten: 42 kilometro eta 195 metro.


Aritz Kortabarria 40. tokian iritsi zen helmugara: 10 ordu eta 3 minutu behar izan zituen agindutako distantziak betetzeko. Joseba Zuzaeta, berriz, pixka bat atzerago sailkatu zen, 51. postuan, 10 ordu eta 19 minutuko denborarekin, hain zuten ere.

Aritzek zera esan digu: "Bizikletan gaizki ere ez, baina korrika ibili nintzen gusturen. Indar aldetik nahiko ondo ibili nintzen probaren amaieran. Izan ere, maratoiaren sailkapenari erparatuz gero, lehenbiziko 20en artean ibili ginen Joseba eta biok. Bizikletan, berriz, ez nuen zortetik izan, italiar batek bultzatzen eta lurrera erori bainintzen. Hala ere, erreperatu eta aurrera egitea lortu nuen. Haize bortitza zebilen, eta nahiko lan izan genuen bizikletako proban. Ibilbidea laua zen, baina haizearekin ez zen erraza aurrera egitea".

Holandatik bueltan, atsedean hartuko dute orain triatletek. Denboraldia luzea izan da, eta pro-

bak gertatzeko makina bat ordu ematen dituzte entrenatzen. Aritz Kortabarriak esan digunez, maiatz aldera hasi ziren Holandako proba buru-belarri gertatzen: "Urte osoan ibiltzen gara entrenatzen, baina maiatzetik aurrera-edo, Holandako probari begira entrenamendu espezifikoa egiten hasi ginen. Aurretik, apirilean Malagan jokatuako beste triatloi baten izan ginen". Biek ere esperientzia luzea dute triatloi probetan: Aritzek laugarren denboraldia izan du eta Joseba zertxobait lehenago hasi zen.

Probaren atarian, dozena bat egun eman dituzte Holandan Josebak eta Aritzek. Esperientzia ederra izan da, eta etorkizunean ere ez dute holako beste proba baten parte hartzeko aukera baztertzen. Aritzek dioskunez, hurrengo denboraldian Munduko Duatloi Txapelketan parte hartu nahiko luke. "Oraindik ez dakit non jokatuko den, baina orain dela bi urte Austrian jokatuakoan izan nintzen eta gustura ibili nintzen. Ea errepikatzerik daukadan...".



Irudian, Aritz Kortabarria Almeren jokatuako Iron Man proban.

FOTOKIROLA



Bergararrak Olinpiadetan

Javier Aranburu, Cristina Revuelta, Amaia Zabaleta eta Juan Luis Etxaniz lagun koardila Atenasen izan da, Olinpiadetan. Han bizi izandako giroarekin eta kirol jarduerekin erabat gozatu dute. Hamaika egun egin zituzten Atenasen, eta, besteak beste, atletismoa, saskibaloia eta tenisa ikusten izan ziren. Bueltako abioia hartzean urrea eskuratu zuen Argentinako futbol selekzioarekin egin zuten topo. Irudian, Saviola jokalariekin.

Kirol Zerbitzuak plazaratu du denboraldi berrirako eskaintza

E.M.


Udaleko Kirol Zerbitzuaren eskutik, herritarrek hainbat kirol jarduera egiteko aukera izango dute 2004-2005 denboraldian. Aurreko urteotan bezala, besteak beste, aerobika, sasoiaren egoteko gimnasia, spinninga eta yoga eskaintzen ditu Kirol Zerbitzuak.

Jarduera bakoitzean ordutegi ezberdinak izango dira. Dagoeneko matrikula epea zabalik dago, eta plaza kopurua mugatua denez, interesatuok hobe duzue lehenbailehen Kirol Zerbitzura jo. Hileroko matrikulak 18 euro eta 28 euro bitartean balio du. Edo-

zein modutan, prezioak ezberdinak dira Kirol Zerbitzuko bazkideendako eta gainerako herritarrendako. Edozein argibidetzarako hau duzue Kirol Zerbitzuko telefono zenbakia: 943 77 91 67.


IGERILEKUAK ITXITA DATORREN ASTEAN
Bestalde, irailaren 13tik 18ra itxita izango da Agorrosingo igerilekua, garbiketa egin behar dutela-eta. Era berean, domekan, hilaren 12an, udako denboraldia amaituko da Arrasateko Musakolako igerilekuetan. Astelehen, hilaren 13an, barruko igerilekuak zabalduko dituzte Arrasaten.

Marra batek iragana eta etorkizuna bereizten ditu.
Ausartuko zara hura zeharkatzen?



Batez besteko kontsumoa: 5,5 - 8,5 l/100 km. CO2 isurpena: 149 - 203 g/km

ALTEA Berria. Zeharkatu marra.




TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxe: 943 76 47 51



UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



**ERAKUSKETA
ETA TAILERRA**
San Juan 1 A
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

**ZABALDU
BERRIA**

ALTZARI DENDA
Ikerleku kalean
Tel.: 943 03 46 30



Lidiaren MIS LUPOS betaurrekoak
sendotutako kristalekin

orain **58€** bakarrik

Lauraren BONARDI armazoiak

orain **35€** bakarrik

MULTIESKAINTZA

MULTIOPTICAS

LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRENERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Eraman dotoresuna zure etxera



gelatin s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 •
Faxa: 943 78 15 51



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 32. alia

IEPA LAGUNOK!

Zer moduz hasi dozue ikasturtia? Dagoeneko lan pixkat egiteko gogua be edukiko dozue ezta? Aste honetan erregalu bat zozketatuko dot erantzun orrixa ondo egiña entregatzen dozuena artian. Beraz, argi argi irakurri eta egin Apatxiko ariketa eta jolasak eta erantzun orrixa entregatu zuen ikastetxeko idazkaritzan martitzen goizerako.



URREZKO ARAUAK

- Sukaldera heldu garenez motxilara labadora sartuko dot.
- Ez dakizula zenbat urte dittuen nere amamak?
- ~~Ya ke sukaldera heldu naizen motxilara labadora sartuko dot.~~
- ~~A ke ez dakizu zenbat urte dittuen nere amamak?~~



LOTU MARRAZKIXAK EXALDIXEKIN



1

A. Ez dakizula zenbat urte dittuen nere amamak?



4

E. Zer dala eta ez zara ordurako etorri?



2

B. Hondartzara etorri garenez, baiñu bat hartu biharko dogu.



5

F. Zure goxokiak banatu ez dittuzenez, ni juango naiz gozokiak eroatera.



3

D. Aittittaren erropekin ezagutu be ez zaitut egin eta!



6


G. Ezetz jakin zer dagoen armairu horren atzian!!

MOTXILA BETE

Taldeko gidariak leku konkretu bat pentsatu eta leku horretara heldu direla adieraziko dau. Adibidez, "Sukaldera heldu garenez, motxilan sartuko dot sartuko dot..."

Ondoren, beste jokalarixak, banan-banan, txandaka sukaldian egoten diren objektuen izenak esango dittuzte.

Norbait zer esan ez dakixela gelditzen danian, jokua bukatu eta bera izango da hurrengo gidaria.




EZETZ ASMATU!

- Zer dala eta zer dala, barbarik esan gabe irakasten dabena?
- Suak beldurra dost landareek maite naute, lurra garbitzen dot eta egarrixa kentzen dot. Zein naiz?



ERANTZUNAK: ura, liburua



Ondo pasau San Martinak!



BERGARAKO UDALA

2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, etorkin, enpresa, Bergarako euskara, etab. Multimedia gela.

Azterketak prestatzeko: EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

Erritmoak: Bi ordukoa (iraila-ekaina) / hiru ordukoa (iraila-ekaina) / bost ordukoa (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina) / astean bi egunetan bi ordu eta erdi (EGA).


Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke. Galde ezazu!

Matrikulatzeko epea: Irailaren 2tik 24ra.

Bulego Ordutegia: Goizez: 8:30-13:00 | Arratsaldez: 14:30-18:30
Ostiraletan: 8:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.



Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

ELKARRIZKETA

YOLANDA GUILLEN/ANTZERKI ZUZENDARIA

“Amateurrak izan arren Bergaran beti ematen dizkigute erraztasunak antzezteko”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Donostiako Ispilu antzerki taldeko zuzendaria da Yolanda Guillen bergararra. Zapatuan, *Cuéntalo tu que tienes mas gracia* antzezlana egingo dute Zabalotegi aretoan, eta emanaldiaren aurretik, antzerki munduan egin duen ibilbidearen berri emateko eskatu diogu.

Noiztik diharduzu antzerki munduan?

Antzezle modura 1991n egin nuen lehen lana; Dario Foren *La fuga*, eta gero beste bi obratan hartu nuen parte. Gero Ispilu taldea sortu genuen 1999an, eta ordutik hona zuzendari lanetan jardun dut. Urtean antzerki obra bat prestatzen dugu, baina aurretik bi talde dauzkadenez bi lanekin dihardut. Beraz, sei antzezlana zuzendu ditut eta antzezle moduan beste hiru obratan hartu dut parte.

Beti antzerkian jardun duzu ala probatu duzu besterik?

Telebistan ere egin dut saiokerarik. *Hasiberriak* telesaillean bost ataletan agertu nintzen. *Goenkale*-tik ere agian deituko zidatela esan zidaten. Noizbait deituz gero, joango naiz berriz ere telebistara.

Antzerkia ala telebista duzu gustukoago?

Antzerkia gehiago baloratzen dut. Izan ere, zuzenean eta jendearengandik gertu jarduten denez, paper guztia buruz ikasi beharra dago eta zerbait ahaztuz gero, momentuan asmatu behar da, eta horrek meritua handia duela uste dut. Telebistan, aldiz, behin eta berriz errepikatzen eta grabatzeko aukera dago.

Grabatu berri dira *Aupa, Etxebeste* filmeko hainbat zati Bergaran. Inoiz zinean jardutea pentsatu duzu?

Casting-a egin zutenean pentsatu nuen etortzea, baina azke-

“Bergarako ikusleak antzezlari buruz uste duena garbi esan ohi du, eta nik aintzat hartzen dut”

nean ezin izan nuen. Hala ere, ez dut alboratzen noizbait zinean paperen bat egiteko aukera.

Bergaran, zure herrian, eskainiko duzu antzezlana bihar. Ilusio berezia egiten al dizu horrek?

Bai, beti da pozgarria herrian jardutea. Aurrez ere Ispilu taldearekin izana naiz Bergaran eta oso pozik etortzen gara. Bergaran beti eman izan dizkigute erraztasunak antzerkiak egiteko. Izan ere, beste herri batzuetan, talde amateurra izanik, ez dute nahi izaten guk bertan antzerterik, talde profesionalak nahiago dituzte.

Aurrez izanak bazarete, jakingo duzue nolako den Bergarako ikuslea.

Toki gehienetan bezala Bergaran ere oso jende gutxi joaten da antzerkia ikustera, eta gurea bezalako talde ezezagunak direnean are gutxiago. Beraz, ikusle kopurua urria izango dela uste dut. Hala ere, joaten diren apurrrak oso kritikoak izan ohi dira. Antzezlari buruz uste dutena argi eta garbi esan ohi duten ikusleak dira Bergarakoak, eta hori aintzat hartuta esandako akatsak zuzentzen saiatzen naiz.

Entsegu asko egin dituzue emanaldia prestatzeko?

Udako oportunitate etenaldia egin dugu, eta berriz martxa hartzeko astean entseatzeko jardun dugu. Kontuan hartu behar da Ispilu taldean jarduten dutenek gustuz egiten dutela eta antzerkiarena ez dela euren lana, beraz,

ordu libreak honetan ematen dituzte. Gurea antzerki talde bat izateaz gain, lagun talde bat ere bada eta ni zuzendaria naizen arren, antzezleekin lagun modura jarduten dut.

Zapatukoa ez da Bergaran aurretik egingo duzuen emanaldi bakarra, ezta?

Aurtengo ikasturtean Ispilu taldearen baitan bi talde osatu ditugu eta bakoitzarekin antzerki lan ezberdin bat gertatu dut. Zapatu honetakoa da bata eta beste taldearekin urriaren 2an etorriko naiz. Orduan autore beraren *Damas, señoras, mujeres* antzezlana aurkeztuko dugu. Marbellako diskoteka batean gertatzen da antzerki horretako istorioa, eta hainbat emakumek senargai ohi baten heriotzaren kontura aberastu nahiko dute.

Nola animatuko zenituzke herritarrak antzerkira?

Komedia bat da, eta ongi pasatuko dutela esango nieke. Antzezleek lan asko egin dute eta merezi dute txaloak jasotzea.



‘Cuéntalo tu que tienes mas gracia’

Donostiako Zuloaga ikastetxeko Helduen Heziketa Iraunkorreko Ispilu antzerki taldeak Juan Jose Alonso Millan idazlearen *Cuéntalo tu que tienes mas gracia* antzezlana egingo du bihar, zapatua, irailaren 11n, Zabalotegi aretoan arratsaldeko 19:30ean.

Madril erdialdeko luxuzko hotel bateko logelan gertatuko dira antzezlanak aurkeztu dituen hiru istorioak. Kontakizuna 90eko hamarkada inguruan kokatuta dago. Eszenatokia atontzeaz antzerki taldekoak eurak arduratuko dira.

Ispilu taldeko bederatzi antzezleak emakumezkoak diren arren, batzuek gizonezkoen paperean jardungo dute. Izan ere, elkarren artean oso ezberdinak diren hiru gizonezkoak beste horrenbeste prostitutarekin hoteleko logela horretan izanda-



ko abenturak kontaktatu dituzte eszenatoki gainean.

Antzezlanaren gaia kontuan hartuta ikusle helduendako lana dela esan genezake, umeez ez bailukete ulertuko zetan datzan antzezlanak.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ESPOLON
School of English

2004-2005 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Young learners: %100 gaindituta	Zorionak, gure ikasle guztiei, Cambridgeko Unibertsitateko azterketetan lortutako emaitza zoragarriengatik.
KET: %100 gaindituta	ZORIONAK, GUZTIOI
PET: %85 gaindituta	
First Certificate: %87 gaindituta	
Advanced: %100 gaindituta	

BULEGO ORDUTEGIA: Bergara: 10:30-12:30 / 16:30-19:30
Antzuola: 17:00-19:00 (Irailaren 20tik aurrera)

Ibargarai 31 plazatik Bergara / Errekalde 1 behean Antzuola • 943 76 03 53

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolotxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|--|
| <p>1.
Non kokatuko da Aspace elkarteko egoitza berria?</p> <p>A/ Matxiategin.
B/ Oxirondo plazan.
C/ Ariznoa plazan.</p> | <p>2.
Nongo Iron Man proban izan dira Aritz Kortabarria eta Joseba Zuzaeta?</p> <p>A/ Almere.
B/ Utrecht.
C/ Groningen.</p> | <p>3.
Zein da Yolanda Guillenek zuzentzen duen antzerki taldea?</p> <p>A/ Taula.
B/ Ispilu.
C/ Maskarada.</p> |
|---|--|--|



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RAKEL CERDEIRA rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, **Rakel!** Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Ezkerrekoa Arrese** zeharbidean; eskumakoa **Zubieta** kalean. / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Carbonell oliba-olioa

0,4 °, litroa.

3,39 €

564 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Jauregi Hurtado de la Sal (eta 2)

KOLDO PEREIRA


Jauregiren ibilbide poetikoan 1624a izan zen urterik garrantzitsuenak, bere bi lanik garrantzitsuenak kaleratu baitzituen: *Orfeo* eta *Discurso poético*. Halaber, 1626an Isabel Borboikoa erreginarekin zamaltzain izendatu eta Calatravako abitua eskaini zioten. Jauregik hainbat alor jorratu zituen, eta hori bat zetorren bete-betean Errenazimenduan zeukaten nahiarekin.

Gongora, Lope de Vega eta Quevedoren garaikidea izan zen Jauregi. Aurreneko biek inka-mika ugari izan zituen, eta elkarren arteko eztabaidak poesietan mamitu ziren.

Bestalde, Jauregiren ia koadro guztiak galdu egin dira: Alfonso de Carranzaren erretratuak, Luis de Alcazarren *Vestigatio Arcani*, Ramirez de Pradoren erretratu bat... Ale gutxi batzuk baino ez dira gorde.

1639ko ekainaren leian Calatravaren Ordenako Zaldun izendatu zuten. Hil baino pixka bat lehenago, bere lanik handienetako baten jatorrizko eskuizkribua inprimatzeko prest utzi zuten: *La Farsalia*. Juan Jauregi 1641eko urtarrilaren 11n hil zen, Madrilen, eta han lurperatu zuten.

Bere lanik garrantzitsuenak 1624an argitaratu zituen: 'Orfeo' eta 'Discurso poético'



ARTIBIDA

INPRIMATEGIA

- Inprimakiak orokorrean
- Inprimatzeak paper jarraituan
- Ezkontzarako gonbidapenak
 - Enkoadernazioak
 - Kautxuzko zigiluak

Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara

Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87

E-posta: imprentagarbil@euskalnet.net

PAPER - DENDA

- Bulegoko materiala lantokira eramaten dugu
- Irailean **eskolako materialean** eskaintza berezia
- Enpresa-opariak
- informatikarako osagarriak

ERRETRATUZHARRA

BERGARA

Askatasunaren Aldeko Martxa, 1977ko udan

Hogeita zazpi urte igaro dira dagoeneko alboko argazkia atera zutenetik. Hain zuzen ere, 1977. urteko udan Askatasunaren Aldeko Martxa izan zen Euskal Herrian. 1977ko abuztuaren 5ean iritsi zen ibilaldia Bergarara. 41 urte erbestean eman ondoren Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza senar-emazteak ere Bergarara heldu berriak ziren sasoi hartan. Harrera beroa eskaini zieten herritarrek eta jende ugari elkartu zen egun hartan Bergaran. Abuztuaren 6an hainbat ekitaldi izan ziren Bergaran eta hurrengo egunean Askatasunaren Aldeko Martxak Antzuolarako bidea hartu zuen. Orduko kronikek diotenez, 1.500 lagun atera ziren Bergaratik Antzuolara. Esan bezala, oso ekitaldi arrakastatsua izan zen 1977. urteko udako hura.

Alboko argazkia udaletxeko osoko bilkuren aretoan aterata dago. Ikurrina atzean dutela, hauek dira argazkian azaltzen direnak. Ezkerretik eskumara, zutik; Antonio Irazola, Maria Josefa Ganuza, Pedro Rodríguez, Jose Luis Elkoro, Juan-txo Urbieto, Telesforo Monzon, Mari Karmen Aiausti, Jesus Mari Sebal, Felix Beitia eta Pepe Perez.

Makurtuta: Jose Miguel Muñoa, Maitte Muxika, Ramon Mendibil, Jose Antonio Garitano eta Juan Mari Otaegi.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Udai Artxiboa (Roman Larrañaga).


OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaiztatu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko irailaren 10a / 213. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Eskolan 146 umek ekin diote ikasturte berriari

AINZANE IRIZAR

Eguaztenean, hilak 8, hasi zituzten eskolak Herri Ikastetxeko ikasleek. Aurten, bi urteko 22 ume hasi dira, eta bi gelatan banatu dituzte umeok. Ikasturtea ondo hasteko, Lehen Hezkuntzako ikasleak Arabako bi aterpetxetara joango dira datorren astean.

Ikasturte berriak berritasun aipagarria ekarri du Herri Ikastetxera.

Aurten ume berri asko hasiko dira eskolan: bi urteko 22 ume, hain zuzen ere. Ume horiek guztiak bi ikasgelatan banatuko dituzte, lehen aldiz. Guztira, 146 neska-mutiko ibiliko dira Herri Ikastetxean.

Hasieran, datorren astelehenera arte, hilak 13, goizez bakarrik izango dituzte eskolak, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Irailaren 14tik aurrera, berriz, ohiko ordutegiari helduko diote, goizez eta arratsaldez hasiko dira.

Bestalde, aipatzekoa da iaz baino irakasle bat gehiago ere izango dutela Herri Ikastetxean; aurten 18 irakasle izango dituzte. 18 horietatik, gainera, hiru berriak dira: Junkal Ariznabarreta eta Amaia Argarate soraluzetarrak eta Edurne Iribe-kanpos bergararra. Junkalek ingeleseko eskolak emango ditu; Amaia jantokiko arduraduna izango da eta Edurne, berriz, 2 urtekoen ikasgeletako bateko tutorea.



Eguaztenean hasi zituzten eskolak Herri Ikastetxeko ikasleek.

Bi urteko 22 ume hasiko dira ikasturte berrian, eta bi gelatan banatuko dituzte

ATERPETXEETARA IRTEERA

Urtero ikasturte hasieran egiten duten moduan, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak irteera egin-

go dute datorren astean bertan. Ikasturte berria ondo hasteko irteera politikak antolatzen dituzte urtero.

Arabako bi aterpetxetara egindo dute irteera aurten maila desberdinetako ikasleak; lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak Barriako aterpetxera joango dira; laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoak, berriz, Zuazako aterpetxera egingo dute irteera. Datorren asteko martitzenean, hilak 14, joango dira eta egubakoitzean itzuliko dira.

JAIA

Aiherra eta Antzuola, hogeitau urte senidetuta

Aiherra eta Antzuola senidetu zirela hogeitau urte betetzen diren honetan, AEKren Korrikaren antzerako ekitaldi bat antolatzeko asmoa azaldu dute herri bietako udaletako arduradunek eta hainbat herritarrek. Hasiera bateko asmoa urriaren 29an eta 30ean egitea zen arren, ekitaldia atzeratzea erabaki dute. Arrazoi bat baino gehiago egon da horretarako; batetik, garai horretan ospakizun ugari egoten da: kilometroak, Nafarroa Oinez...

Bestalde, era horretako ekitaldi bat antolatzeko jende eta

denbora asko behar dela, eta denborarekin, behar bezala antolatzea hobe izango dela erabaki.

Gainera, Iñigo Ramirez de Okariz Kultura Batzordeko arduradunak zera azaldu digu: "Nahi duguna da poliki-poliki herritarren artean giroa sortzen joatea, herritarrek eta elkarteek antolakuntzan parte hartzea, azken baten, ospakizun herrikoia antolatzea".

Laster, Aiherrako herritarrak etorriko dira Antzuolara, ekitaldi berezi horren proiektua aurkeztera.

LABUR

Haurtzaindegiko aurrematrikulaziorako epea irailaren 27an zabalduko dute

Aurrera doaz haurtzaindegia eraikitzeko lanak, eta aurreko astean iragarri genizuen moduan, Udaleko arduradunen asmoa da otsailera haurtzaindegia martxan jartzea. Hil honetan bertan zabalduko dute aurrematrikulaziorako epea. Irailaren 27an, hain zuzen ere, zabalduko dute eta urriaren 8ra arte egongo da izena emateko aukera, udaletxeko bulegoetan.

Lapatzak eta Bidaurrek bigarren sari bana jaso zuten eguaztenean Ordiziako azokan

Eguaztenean, hilak 8, egin zuten Ordiziako azoka nagusia. Hantxe izan ziren Antzuolako Lapatza eta Bidaurre baserrietakoak, euren produktuekin. Lapatzak barazkien lehiaketan parte hartu zuten; Bidaurrek, berriz, fruten lehiaketan. Biek jaso zuten bigarren saria, nork bere mailan.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LEKY-BERRI
MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

EGaña

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

IKASTAROAK

Irailaren 27an hasiko da yoga ikastaroa, eta datorren astelehenean berbaldia egingo dute

A.I.

Yoga ikastaroa irailaren 27an hasiko da eta Jose Luis Armendiak emango ditu eskolak. Astelehenean, berriz, hilak 13, Armendiak berak yogaren gaineko berbaldia egingo du, Olanan etxean.

Astelehen eta eguaztenetan izango dira yoga eskolak Olanan etxean, 19:00etatik 20:30era. Matrikula 30 euro ordaindu beharko da, baina, ikasturtea amaituz gero, diru hori itzuli egingo dute. Hile-ro, berriz, 15 euro ordaindu beharko da.

Orain dela bi urte jarri zituen berriro martxan Udalak yoga ikastaroak; aurretik ere izan ziren ikastarook herrian, baina, urte askotan ez zen yoga egiteko aukerarik egon Antzuolan. Bi urte hauetan herritar mordoa ibili da Jose Luis Armendia arrasatearrarekin yoga egiten.


ASTELEHENEAN, HITZALDIA

Udaleko arduradunek eta Jose Luis Armendiak berak yogaren gaineko berbaldia antolatu dute datorren astelehenerako, hilak

13. Olanan etxean izango da berbaldi hori, 19:00etan. Herritar guztiei zuzenduta dago berbaldia, batez ere, yoga egiten haste-koak direnei edo yogaren gaineko gehiago jakin nahi dutenei. Ikastaroan teoria gutxi ikasten dute, Jose Luis Armendiak azaldu digunez; ikasle horiek teoria gehiago ikasteko aukera dute, horrela, yoga kontzientzia gehiagorekin egin ahal izateko

Jose Luis Armendia irakasleak adierazi digunez, yoga zer ez den azalduz hasiko du berbaldia: "Lehenik eta behin, zera azalduko dut: yoga ez dela ez erlijio bat, ez gimnasia, ez kirola eta ez sekta bat". Uste oker asko dago oraindik yogaren inguruan. Ondoren, yogaren gaineko azalpen guztiak emango ditu.

Astelehenean, hilak 13, Olanan etxean, berbaldia egingo du Armendiak, 19:00etan



Jose Luis Armendia arrasatearrak eskainiko du aurten ere yoga ikastaroa.

ARTXIBOA

LABUR

Liburutegiak ohiko ordutegiari heldu dio oraingo astean

Udako oporraldien ondoren, ohiko ordutegiari heldu dio oraingo astean Udal Liburutegiak. Aurreko urtetan bezala, astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, arratsalde. Astelehenetik eguenera, 17:00etatik 20:00etara; egubakoitz arratsaldetan, berriz, 17:00etatik 19:00etara.

Gogoratu ezazue, bestalde, Goienkarian zorion agurrak jarri nahi izanez gero, Udal Liburutegian laga ditzakezuela argazkiak.

Autobus zerbitzua berriro martxan jarri dute

Antzuola eta Bergara arteko arratsaldetako autobus zerbitzua martxan dago berriro, martitzenetik. Antzuolatik Bergarara joateko, 17:00ak eta 20:30 artean, ordu erdiro egongo da zerbitzu hori. Bergaratik Antzuolara etortzeko, berriz, 16:45 eta 20:15 bitartean, ordu erdiro.

Zerbitzu hori sarri erabili behar dutenek bonoak eros ditzakete udaletxean. Bonoa erosita, bidaia bakoitza 90 zentimo kostatzen da; txartel arruntarekin, berriz, euro bat.

IKASTAROAK

KZGunean hainbat ikastaro egiteko aukera

AINZANE IRIZAR

Udako oporraldien ondoren, Antzuolako KZGuneak zabaldu ditu berriro ateak. Egubakoitzero egongo da zabalik, 16:00etatik 18:00etara. Interneten doan ibiltzeko aukeraz gain, hainbat ikastaro ere antolatu dituzte.

Astean behin, egubakoitzetan, zabalduz ditu bere ateak Antzuolako KZGuneak. Egun horretan, 16:00etatik 18:00etara, Interneten doan ibiltzeko aukera dute nahi duten herritar guztiek. Baita hain-

bat ikastaro egiteko aukera ere. Eskaintza zabala da, benetan; berrogei bat ikastaro ezberdin dituzte herritarrek aukeran.

ERA GUZTIETAKO IKASTAROAK

Ikastaroak ere, Interneten ibiltzeko aukera bezala, doakoak dira. KZGunean bertan eman behar da izena interesa izanez gero.

Hastapen ikastaroak daude, alde batetik: ordenadorea erabiltzen ikasteko eta Internet ezagutzeko ikastaroak, hain zuzen ere. 20 orduko ikastaroak dira hauek. Bereziki emakumeei eta adine-

koei zuzendutako ikastaroak ere antolatzen dituzte, 20 ordukoak hauek ere.

Gainerako ikastaro guztiak gai zehatzagoen gainekoak eta iraupen laburragoak dira.

Kontsumitzailea Sarean izeneko ikastaroa ere eskainiko dute; bi orduko ikastaroa izango da eta kontsumitzaileek dituzten eskubideen gaineko informazioa topatzen ikasteko aukera emango dute.

Zure Etxebizitza Aurkitu ikastaroa ere egongo da, ordubeteko ikastaroa. Finantza Erakundeekin Internet bitartez harrema-

nak izaten ikasteko aukera ere eskainiko du KZGuneak: transferentziak zela egiten, kontu laburpenak eskatzen... Interneten egunkariak irakurtzen, erosketak egiten, liburuak aurkitzen eta beste hainbat gauza egiten ere ikasi ahal izango dugu.

Internetekin lotutako ikastaroez gain, bestelakoak ere eskaintzen ditu Antzuolako KZGuneak. Hala nola, irudi edo argazki digitalak tratatzen ikasteko ikastaroa; lau orduko ikastaroa izango da. Acrobat Reader programa erabiltzen ikasteko aukera ere egongo da.

Irailaren 17an egingo dute osoko bilkura

Udaleko arduradunek atzeratu egin dute iraileko osoko bilkura. Normalean hilabete-ko lehenengo egubakoitzean egiten duten arren, iraileko hilaren 17an egingo dute.

Bestalde, aipatzekoa da uztailean hiru osoko bilkura egin zitzutela, azkena, hilaren 30ean. Hantxe, besteak beste, hartzaindegiko lanen esleipena onartu zuten eta alkateak gaixotasun bajagatik jasotako dirua Dina Mujikari ematea erabaki zuen, alkate bezala egindako lanagatik.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko irailaren 10a / 197. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



ARTXIBOA

Besteak beste, *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlanak ikusteko aukera izango da Espaloian.

Espaloiko egitarauko hainbat emanaldi gertu

IRATI AGIRREAZALDEGI

Espaloia Kafe Antzokiaren baitan Kultura taldea osatu dute eta hasi da lehen pausok ematen. Talde honek Espaloian egingo diren emanaldiak zein izango diren erabakitzen ditu. Urriari hasi eta abendura bitarteko hainbat saio jadanik adostuta daude.

Lau talde osatu nahi dituzte Espaloia Kafe Antzokian lau talde osatu nahi dituzte: filmak, umeak, euskara eta kultura. Horietatik kultura taldea hasi da lehen pausok ematen.

Talde honek Espaloian egingo diren antzerki emanaldiak, dantza saioak, hitzaldiak eta kontzertuak zein izango diren erabakitzen ditu.

PROGRAMAZIOA ZEHAZTUZ

Bilerak egin dituzte eta hiru hilean behin programazioa gertatzea da Espaloikoen asmoa. Jadanik erabakita daude urritik abendura bitarteko hainbat emanaldi.

Kontzertuak, antzerki emanaldiak, zine kluba eta diapositibak izango dira besteak beste. Umeendako hainbat antzerki saio ere egitekotan dira.

Emanaldietako batzuk Topaguneko Kultura Errota egitasmoaren bidez ekarriko dituzte Espaloia Kafe Antzokira. Kultura Errotaren zarpigarren edizioa da aurtengoa eta ia 10.000 ikusleak gaituzte da euren asmoa.

Kultura Errotako ekitaldiak urtero Elgetara ekartzeko aukera izan da, baina leku aproposik ezean ez dituzte antolatatu. Orain, Espaloian egingo dira emanaldiak, baita egitasmo honen baitakoak ez diren beste hainbat ere.

Urritik azarora arteko egitaraua

URRIA

7, eguena

19:00 Pili Arinen eskultura erakusketa.

10, domeka

20:00 Jabier Muguruzaren kontzertua.

29, barikua

22:30 R. Agirre eta Joserra Senperenaren antzerkia.

AZAROA

7, domeka

20:00 Igelaren Banda taldearen kontzertua.

12, barikua

22:30 *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlanak.

ABENDUA

9, eguena

20:00 Bixente Askasibarren diapositiba emanaldia.

• Zine kluba:

Eguaztenetan 21:30ean.

• Danbako maketa lehiaketa:

Barikuetan 22:30ean (urriaren 22an hasita).

GARRAIOA

Autobus zerbitzu berriak abian dira

J.A.

Joan zen irailaren 8tik aurrera abian dira Elgeta Bergara eta Arrasaterekin lotzen dituen autobus zerbitzu berriak.

Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko gestioen ostean, zerbitzu publiko bereziak jartzea adostu dute. Honela, neurri batean bada ere, elgetarrek denbora luzean garraio publiko-arekin izan dituzten arazoak konpondu nahi dituzte, euren joan-etorriak egiteko modua erraztuz. Izan ere, bi herri hauetara jende asko joaten da egunero eta zerbitzuak oso urriak ziren.

Elgetarrek, besteak beste, eskolara joateko erabiltzen dute autobusa. Izan ere, gazte asko kanpoan ikasten du.

Bestalde, errehabilitazioa egitera Bergarara zein Arrasatera joan behar izaten dute elgetarrek eta baita ospitalera ere.

BERGARA ETA ARRASATE

Autobusak 07:30ean, 11:30ean eta 14:45ean irtengo dira Elgetatik. Lehen Bergarara iritsiko da eta bertan 08:15ean Arrasatera doana hartu ahal izango dute bidaiariek. Bigarren Arrasatera arte joango da Bergaran geldialdia eginez. Azkena, berriz, Bergara artekoa da eta han beste autobus batzuk hartu beharko dituzte Arrasatera joan nahi dutenak.

Bueltatzeko, Arrasaten 11:05ean eta 14:20an irtengo dira autobusak, eta Bergaran 11:20an eta 14:40an, azken bi hauek zuzenean joango dira Elgetara.



Besteak beste, ikastetxeetara joaten dira elgetarrak autobusez.

LABUR

Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatu du Maya ingurumen taldeak

Maya ingurumen taldeak Ekonekazaritza federazioaren laguntzaz nekazaritza ekologikoari buruzko oinarrizko ikastaroa antolatu du. Irailaren 27an hasi eta urriaren 13ra bitartean, astelehen, eguazten eta barikuetan arratsaldean hiru orduko saioak egingo dituzte 17:00etatik 20:00etara. Oinarrizko kontzeptuak, lurra, teknikak, negutegiak, barazkien babes eta haziak izango dira ikastaroan jorratuko dituzten gaiak. Ikastaro teorikoa amaituta azken egunean nekazaritza ekologikoa egiten duen baserri bat bisitatuko dute. Ikastaroan parte hartu nahi duten Ekonekazaritzako bulegora 943 76 18 00 (Josune) edo udaletxera 943 76 80 22 (Juan Ramon) deitu behar dute izena emateko. 30 euro ordaindu beharko dira.

ELKARRIZKETA

OLATZ SARASOLA/HAURRESKOLAKO IRAKASLEA

“Afektiboki eurengana iristeko gai izan behar da umeekin jarduteko”

I.A.
Datorren irailaren 15ean hasiko da ikasturtea Elgetako haurreskola berrian. Olatz Sarasola tolosarra izango da bertan irakasle, eta kurtsoa gertatzen ziharduen bitartean tarte bat egin digu haurreskolaren berri emateko.

Datorren astean jarriko da abian haurreskola Elgetan. Zein da haurreskolaren helburu nagusia?

Lanean diharduten gurasoei laguntza eta euren seme-alabei hezkuntza eskaintzea.

Zenbat ume egongo dira ikasturte hasieran Elgetako haurreskolan?

Ikasturtea hiru hurrek hasiko dute. Ume kopurua eskola bakoitzaren arabera mugatzen da eta Elgetakoan gehienez hamar egon daitezke, hiru baino gutxiago egonez gero itxi egingo litzateke. Izena eman duten haurrak 20 hilabetetik beherakoak dira, baina 0 eta 3 urte arteko umeek dute lekua hemen.

Zer aurkituko dute haurreskolara datozen umeek?


Batetik gela bera. Bertan batetik lotarako edo atsédenerako gela bat egongo da sehaskekin; bestetik gune zabal bat hiru zatitan banatuko dena: hizkuntza lantzeko gunea, jolasen txokoa eta umeek euren kabuz ibiltzeko beste tarte bat; eta hirugarrenik sukaldia eta komunak bai niretzat eta baita umeendako ere. Kanpoan jolastokia izango dute.

Zer egingo dute hurrek?

Umeak ezagutu ahala antolatuko dugu egin beharrekoa, baina eskolaurreko gela batean egiten diren gauza bertsuak egingo ditugu hemen: jolasak, ipuinak, psikomotrizitatea... txikien adina kontuan hartuta, noski.

Zein ezaugarri behar ditu hezitzaile batek adin honetako umeekin jarduteko?

Titulazioz egokiaz gain, afektiboki umeengana iristeko gai-



I.A.

“Ikasturtea hiru hurrek hasiko dute baina hamar umerendako tokia dago haurreskolan”

tasuna edukitzea. Umeek gurasoen papera egingo ez duen heldu baten beharra dute eta guk ahalik eta xamurtasun eta sentikortasun gehien eman behar diegu umeek gurekiko konfiantza izan dezaten. Pazientzia izatea ere ez dago batere gaizki.

“Besteak beste, jolasak, ipuinak eta psikomotrizitatea egingo ditugu umeekin”

Nola animatuko zenituzke elgetarrak umeak haurreskolara ekartzeko?

Gelara etortzeko esango nieke eta hemengo funtzionamendua ikusteko. Horretarako aurrez jakinaraztea komeni da, 08:00etatik 16:00etara egongo da zabalik.

ERREPIDEAK

Aurten hasiko dira saihebidetako lanak

I.A.

Saihebidetaren proiektuak hainbat ezbaidak sortu ostean, lanak egiteko erabakia hartu zuten eta urtea amaitu aurretik obren lehen fasearekin hasteko asmoa dute.

Lehenengo fase hau nork egingo duen erabakitzeko lehiaketa publikoa deitu zuten, eta zortzi proiektu aurkeztu dira.

Proiektu onena eta ekonomikoki egokiena zein den erabakitzeko geratzen da orain, eta horre-

tarako hilabetea amaitu arteko epea egongo da. Behin izendatutakoan lanak urtea amaitu aurretik hasiko dituzte. Udaletik esan digutenez, baliteke urrian edo azaroan ekitea. Aurreikusitako kostua 1.496.773 euro da.

Bestalde, Bergara eta Elgeta arteko errepidean, Uberako eta Izarreko bihurtzeko konpontzeko zazpi proiektu aurkeztu dituzte. Lan hauek ere urtea amaitu aurretik hasi nahi dituzte. Proiekturako aurreikusitako kostua 1.088.865 euro da.

KIROLAK

Irailaren 20an hasiko dira kirol zerbitzuak

I.A.

Datorren irailaren 20an, yogari buruzko ikastaro labur batekin hasiko dira kirol zerbitzuak.

Izena eman nahi dutenek udaletxera (943 76 80 22) edo kiroldegira (943 76 82 84) jo beharko dute. Bestalde, instalazioak erabiltzeko aldikako erreserbak kiroldegian egingo dira, hilabeteko edota urteko erreserbak, berriz, Udaltzaletan egingo dira.

Aurten ere aukera zabala dago kirol zerbitzuetan: sasoian egoteko gimnasia, edadetuen gimnasia, oinarrizko soin hezkuntza, txikien dantza eta aerobika, yoga, tay-chia eta aerobika eta fitness delakoa; azken honen baitan tonifikazioa eta dantza egongo dira.

Ikastaroak irailaren 20a eta urriaren 7a bitartean hasiko dira. Taldea osatzeko gutxienez zortzi lagun beharko dira eta izena lehenbailehen ematea komeni da.



ARTXIBOA

Yogari buruzko oinarrizko ikastaroa izango da aurtengo lehenengoa.

Patxi Taberna

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA